

# EUSKAL OÑIA

# VIDA RELIGIOSA

## Eskerron-agiria

Nere ama maitea zanaren eriotza, ainbat eta ainbat euskal aizpa eta analen adiskidetasun azalpede izan zait.

Nere saminaidian ezti izan zaizkidan agurrak asko ta asko eskertu dizkitzuet guziaz.

Baño, jakin, neri eskeñitako laguntzak baño ikutu sakonagoa egin didatela, guzian esparietatik, nere amaren alde, goruntz nabaitu ditudan otoiñtz ederrak. Eskerrak, biotz-biotzetik eskerrak.

IRA

## Ura

Izadian degun gauzarik ugarien eta bearreneko bat, ura da.

Ugariena, bada lurrin egoeran, lañuetan; urkin egoeran itxaso, erreka, iturri, intz eta beste tanke-ara askotan; eta sendo, izotz, kazkabar, elur eta abar arkitzen da. Gafiera arkitzen da beste segal edo sustantzi batzuekin batuta abereetan, barazki ta meatz batzuetan.

Bearrenekoa, ez bai legoke nekazaritzarik ori gabe. Ez eta ere oñan edo industriarik, bera dalako oien oñarria bezela. Bearrenekoa da salerosketa edo komertziorako ere, artu eman oek erreztuaz, batez ere erri menditsuetan uri batetik bestera itxaso edo ibaetan bide irikia izanik.

Osasuna, Jaungoikoak ludi ontan eman digun ontasun neurrigabe au gordetzeko ere, ura bearrezkoa degu, bada garbitasun gabe gaitz askoren atzaparretan gifañke berealaxe.

Azkenik, gure jan edanetan ere bear bearrezkoa zaigu.

Ura bi motetakua izan leike, mama (potable) eta ezdana.

Edateko ona izan dedin gatz mota batzuek bearrezkoak ditu baño neurri jakin batean; geyago badu gogorra deritza ta urdall da sabeleko gaitzak sortu lezazke.

Ura, barazki ondo egosten baditu, eta jaboyari aparra ondo ateratzen badio, izango da mama, beste la ez da ona.

Ur garbiyak margo berezik ez du, naiz da lodi dagonean urdinorlegi antza izan; ez du usarik eta gozamenik ere.

Izosten da 0°; ta irakiten du 100°. Berotuaz lurrin egoerara biurtzen da.

Izoztutian neurritz azten da ta pixuz arindu, beragatik itxaso izoztuetan ur gafiñan arkitzen da ta ueste gabian itxasontziak jo ta gaitzia gertatu oi da.

Ora ba, naiz da labor xamar azaldu, zeñen ugaria ta bearrezkoa dan ura. Ur asko inguruan duten erriak dira aberatzenak eta giza bidean buru daudenak.

Baño ezdegu aztu bear esatera zarrak diona: ura ere bere neurrian dala ona; emendik ateratzen bada gizonarentzat zorigaitzik aundienak berekin ditu.

ARANTXA

## Elizkoitasuna ta Euskaltasuna

Elizkoitasuna ta euskaltasuna gure erritik igeska dijoazkigula ta, amañka ziriborro idatzi digute orain go euskal-idazle askok.

A. bañan, lengo igande ortan Itziar'en bildu gifiñan 2.000 luistar euskaldunak su ta gar dagigula ikusita, elizkoitasuna ta euskaltasuna gure erritik igeska dijoala esatea gezur bat baño ez dala derizkiot.

Antze ikusi zan gure arteko leyatasa, sinismen ta euskeraren alde, orregatik, elizkoitasuna ta euskaltasuna gure artetik ezatala beñiere aldatuko itxaropen sutua sortu zan gure biotzetan.

Oturuntz ondorengo deadarrak baño egitagozkoak dira bai, onelako bñiera ta lankeñak, bai, eliza eta euskeraren alde mintzatzeko eta

bañta aurrera zerbait egiteko ere.

Elizako gauzak biotzetan, eusker mingañean, antziñako oiturak eginkizun guztietan, besterik ez genuen egin Itziar'ko Ama euskaldunaren altzoan, lengo igande ortan.

¡Euskaldun guztiok onela egin ezkerro, gure ollotegiko ollarrak "kukurruku" deadarra, zoli joko likek!

Itziar'en igande ortan bildu gifiñan bezela, maiz-maiz bildu gaiten euskaldun danak, an ta emen erabakitako lan astunari astifiñaldi gogor bat eman, elizaren ta gure mintzoaren aurka dabiltzkigun basati amorratu oiek gure artetik jaurti eta oiek dabiltzkiten izparringi gaitzok zapaldu ta beñiere gure begiak ikusiko ez dituzten leiz-sakon batera jaurti arte. Onela ta ez bestela egin genezake gure arteko aberri egitazko ta iraunkorra, Jaungoiko ta aberriaren maitasunak auxe dagigu, beren alde geldí gabeko lanean jarraitzea. Zoritxarra, au egiten ez degun Euzkadi'ren seme maltzur ta oarkabeantzat. Goraka jarduntzea baño lan iraunkorrari ekitea ez al zaio atsegiñagoa izango gure Amari? Zuek esan...

ANASTAXIO

## Gazteiz

**Euskeraren alde.** — Astelenean eta Eusko Ikaskuntza'n asi dira euskerazko ikaskizunak. Beste urtetan bezela Lekuona'tar Manuel jaun jakintsu eta euskaldun jatorra izango degu irakasle. Aleginduko gera asko ikasten bearra ere badaukagu ta, zez da ala, "Luzeaz"?

**Berri naigabetsua.** — Ordizia'n eta gaixo aldi luze baten ondoren Jaunak Bereganatu du etxeko andre zintzoa zan Oyabide'tar Joxepa Manuela. Laguntzen diegu bere naigabeñi bere seme eta alabari, baño batez ere bere illoba ta uri ontako gure lagun maite Sorkunde eta Josebe'ri.

Ordizia'tik eta bere amaren illobratzean izanda, etorri zaigu Urretagoyena'tar Igone.

**Merkatua.** — Ostegunean eta eguraldi ederrarekin izan genun "merkatu" eguna. Salerosle asko izantzan, baita ere zer saldu-erosia. Ara emen gauzen batzuk nola saldu ziran: Arraultzak, dozena lau pesetan; patata'k 22 zentimon kiloa; mañtsa, zazpi eta zortzi txakur aundi; sagarrak, 6 errialean kiloa. Uxuak asko ziran eta 4'25'n bi ematen zituzten.

Itxasoko arraya gutxi eta odeiez gain: Iegatzak zazpi eta zortzi laurleko egin zuan, eta xardiñak bi laurleko, kiloko.

**Ostikolariak.** — Igandean eta Mendizorroz'ko zelalean jokatu due emengo "Deportivo Alaves"ek eta Bilbao'ko "Athletik"ek. Partidu zalla batentzat eta bestentzat. ¡Ziriako'k uts eginda etxeko atean irugarren tantoa sartu izan ez balu! Baño zer egingo zaio: ez genun beintzat galdu ta tira.

GAZTEIZ'KO ANDERENOA

## Albiztur

"La Voz de Gipuzkoa"n gure Erretore jaun eta emengo aurragatik... orain bi aste agertu zana Irakurri ondoren. — Igara zan San Migel arratsaldean Tolosa'ko Olarrain auzoan dagon ikastolako irakasle edo maestra, bere ikasle nekka-mutillak nasi zituala (eta amar urtetik gorakoak ere bai eta bi baño geigo bai ziran noski sail artan) gure enparantzara etortzen, bertan, enparantzara dauzkagun eserlekueñtan merindatzen eta ondoren jostatzen ikusi nituan.

Beren arratsaldekoa bukatu eta ikasleak jostatzen asi ziranen, maestra ori gerturatu zitaidan eta guztik' adetz agur egin ondoren... nola bere ikasle nekka-mutillai gure Erretore jaunak Elizan sartzen ez zioten utzi eta abar, zerbait min-dun zegoala agertuaz esan zizkidan

maestra orrek. Ordurako, Elizako ate ondoan gertatu zanaren berri zerbait jakindun negon; une artan an arkitu ziran nere illobatxoak esan bai zidaten. Beragatik, maestra orri erantzun nion ondorengo era onetan:

"Nexka-mutillak nasi Elizan sartzea galerazko zizuten gure Erretore jaunak. ¡Ez, ordea, Elizan sartzea? ¡Mutillak goiko atetik eta nekak bekotik, Eliz ontan oitura dan bezela sartu litezkela esan omen dizute ta? ¡Eta sartu egin bear zenduten alaxe!

— Bai, baño... bein tema artu det eta nekka-mutillak ez ditezela sartu ta kito. Ni bakarrrik Eliza ikusteru joango naiz"—esanaz,—maestra bakarrrik joan zan.

Maestra orri berari ere esan nion da... ez nitzan arritu gure Erretore jaunak egin ziotena egiteaz. Bere Eliztar nekka-mutill guztiak Elizan ezekik kanpoko beren jolasetan ere, al dan bereziñena, au da, nekka'k Elizpean eta mutillai enparantzaren beren jolasaldiak egin-erazotzen ben-benetan alegintzen bai da gure Artzal ona. Aurtzaroan lotsakoi eta garbizale izaten erakusteak asko balio duala ongi bai daki. ¡"La Voz" zaleak baño obeki, noski!

Erri ontako mutiko batek "maestra txiki" deitua egia dala jakin det eta gaizki deitua dago. "La Voz"ek zion bezela itz oyezaz gafiñera, "alde emendik" ordea, ez ziotela iñork deitu diote orduan an ziranak. Eta mutiko orrek deitu ziona ere, berez, au da, beste iñork zirikatu gabe deituko ziola, edozer gauz ipiñi edo jokatu nuke:

Geituaz edo gogo okerrez ezartzen duana "La Voz"ek, bere egunean zigortuko du gure Jaungoiko Jesus'ek.

LUISTAR

## Azpeiti

**Luistarrak.** — Igandean izan zuten illeroko Jaun-artzea emengo luistarrak asko urbildurik Mai Donera.

Bertan irakurri zigun A. Laskibar'ek zem luistar diran Batzar-artezkaria (Junta directiva) egiten dutenak.

Ona emen Batzar-artezkari berria:

Lendakari, Egaña'tar Iñaki.  
Orde, Lasa'tar Iñaki.  
Idazkari (sekretayoa) Nazabal'tar Errapel.  
Orde, Garmendia'tar Joseba Mirrena.  
Diru-zai, Olaizola'tar Justo.  
Orde, Alberdi'tar Jerman j.  
Batzarkide edo bokal: Uranga'tar Jesus, Otxoa'tar Jesus, Elias'tar Saturnino, Egiguren'tar Peli, Arzelus'tar Zeñili ta X. X.  
Abesti zuzendari Alberdi'tar Baltasar j.

Artu bitzate nere zorion oparotsuenak Batzar berri ontako luistar guztiak ta urte askotako izan ditezela opa diyet.

**Oroimen bat.** — Larunbatian edo ill onen 25'ean betetzen dira 91 urte euskaldun guziak ainbeste maite dituzten gure eskubide ta azkatasun guziak sartu oi ziran lege-zarrak Bergara'n egin zuten Itunpen edo konbenio ondoren Kastilla'k lapurlu zizkigula.

Orregatik eskatzen diegu lerrokoda auen bidez gure Udalarri, gure asabak ainbeste maite izan ta guk naiz ezagutu ez arren gure orolmen legez-zar oyetan daukagun aspeitiar eta euskaldun guziak, egun orretan Udaleko ikurriña edo bandera beltzez estalita agertzeko.

Ez oldoztu dei au gure orolmen argaletik irtena dala baizik euskaldun guziak bat arturik, guda edo gerra bizia egiteko asmoan daude lege-zar maite oyeke gureganatu arte.

Zalantzak ez degu gure oitura zarrak ainbeste maite dituzten zifiñegotzi edo konzejal guziak onik artu ko dutela dei ori ta egun orretan erriko ikurriña beltzez estalita ikusiko degula.

**MIERCOLES 22 DE OCTUBRE**  
**Santos de hoy:**  
Ss. Marcos, Alejandro, Felipe, obs. Severo, pb., Nunilona, Alodia Córdula, vgs.; Eusebio, Hermetes, mrs; María Salomé.

**Santos de mañana:**  
El Santísimo Redentor. — Santos Servando, Germán, Teodoro, pb. mártires; Ignacio, Severino, Román, Vero, obs.; Domicio, pb., Benedicto, cfs.

Hoy, miércoles, a las siete de la tarde, darán comienzo los solemnes cultos que el Centro parroquial del postolado de la Oración dedica a Jesucristo Rey como homenaje de amor y tributo de pleitesia.

Predicará todos los días el R. P. Daniel de la Vega.

La comunión general será a continuación de la misa de siete del próximo domingo; y en los cultos vespertinos que tengan lugar dicho día se recitarán las preces ordenadas por Su Santidad.

A continuación de la visita de altares se dará a los fieles la bendición del Santísimo, pudiendo acto seguido ingresar en el Apostolado cuantos así lo deseen.

**CUESTION DE HONOR**  
Si; cuestión de honor y no otra cosa debe ser para todos los cristianos la asistencia puntual y diaria a dichos actos.

Que nadie pues, falte a estos actos especiales, días de corte de Nuestro Divino Salvador.

Que ardan en torno a El los corazones de todos sus devotos vasallos.

**APOSTOLES DE LA ORACION**  
Que ninguno de vosotros pretenda justificar ausencias que no deben darse.

**PARROQUIA DEL BUEN PASTOR**  
Mañana, día 23, se celebrarán en esta parroquia los solemnes cultos de la Archicofradía de los Jueves Eucarísticos.

Por la mañana, la misa de comunión general será a las ocho, con los cánticos y oraciones de costumbre, juntamente con la novena del Perpetuo Socorro.

Por la tarde, a las siete, se celebrará la Hora Santa amenizada con las fervorosas oraciones y dulces cánticos, en que tomarán parte todos los fieles.

Todos deben asistir con la insignia de la Archicofradía, de la que podrán proveerse, los que no la tengan, en la mesa petitoria.

**NOTA.** — Se advierte que por hallarse en esta parroquia canó-

nicamente instituidos los Jueves Eucarísticos, cuantos deseen hacerse acreedores a la especial indulgencia plenaria concedida a esta Archicofradía deben procurar acudir a la comunión general de los ocho, y a la tiernísima Hora Santa que se celebrará a las siete en este grandioso templo.

**Archicofradía de Nuestra Señora del Perpetuo Socorro y de San Alfonso María de Liguorio**  
Esta Archicofradía celebrará, en obsequio de su Excelsa Patrona la Santísima Virgen María, un solemne novenario que dará principio mañana, 23 de los corrientes.

A las seis y media de la mañana, habrá una misa rezada en el Altar de la Virgen con lectura de la Novena en vasquense y otra misa de comunión general a las siete y media en el mismo Altar.

A las siete de la tarde, después de la Exposición del Santísimo, se rezará la Estación y el Santo Rosario y a la lectura de la Novena seguirá el sermón que todos los días del Novenario predicará el Reverendo Padre Francisco Díez, Redentorista.

Terminará la función de la tarde con la bendición del Santísimo y canto de gozos a Nuestra Señora del Perpetuo Socorro.

El día 30, víspera de la terminación de la Novena, finalizada la función de la tarde, se trasladará el Clero al Altar de la Santísima Virgen del Perpetuo Socorro para cantar una solemníssima Salve.

El día último del Novenario, después de la función vespertina, tendrá lugar la tierna y solemne procesión del Santísimo por el interior del templo con visita de Altares.

Todos los días de la Novena, y mismo en las misas de la mañana que en la función de la tarde se dará a besar la reliquia de la Santísima Virgen.

**NOTA.** — El día 30, a las seis y media se hará la imposición del Escapulario a los nuevos asociados que llevarán al efecto una vela que dejarán a la Virgen.

El domingo, día 26, entre tres y media y cuatro de la tarde, tendrá lugar el acto de la consagración de los niños a la Santísima Virgen.

El día 4 de noviembre se celebrará en el Altar de la Virgen misa de Requiem en sufragio de los archicofrades difuntos.

A. M. D. G.

## Zaldibi

Tamalgarriya izan zitzagun, erri-jayak zirala-ta gure txoko maite ontan ikusi gendua ikustea.

Orain arte, euskal-soñu alai ta ederrak entzun eta dantza eder garbiak ikusi izan dira: aurtan txistu ta danbolin soñuaren ordez banda ta aspo-soñua izan ditugu. Ta dantza garbien ordez berriz dantza zikin lotsagarriak.

Ara nola lan egiten duten gaiztakeria zabaltzeko Zaldibi'n katuak ere ba-dakite nortzuk izan diran dantza oien eratzalleak. Juan Kruz tabernariya ta Lasa'tar Paustino indianoa izan omen dira. Bai, ba, oso atzera omen zegoen Zaldibi rriya ta beste erri batzuen mallaraño jasotzeko oiek añako gizonik izan ez. To dirudunak diranez beren poltxikukit ordaindu dituzte soñu-gastu guz tiyak. Ori da ori eskuzabaltasuna.

Artzekotan oraintxe artuko du Zaldibi'k aurrera bidea. Zorionez dago. Ba-ditu beste bi gizon ospatsu, Iztueta jaunaren neurrikoak ia iean.

Banda naiko izan ez balitz bezela beste soñurik ere izan degu ta soñu orren araura ixkanbilla ta dantza nastua ugari baserritarren artian ere. Goiko-kale aldean Migel Mari'ren taberna aurrean eta an inguruko etxe-barruetan dantza asko egin zan eta dana lotua ta zikiña.

¡Ori al da jolas egitea? Ori aberreen antzera ibiltzea da ta ezin lezake iñork ontzat eman.

¡Zertarako erri-agintariyak? Oitura garbiyak gordetzeko ez; bafia atzerrietako gaiztakeri guziak atekatik itzikteko bai.

Gurasoak berriz lo edo daude.

**GALBIDE**



**PERFECCION PRONTITUD**

**FOTOGRAFADO ENRIQUE VELAJO**

**BUEN PASTOR 18**  
TELEFONO 14.537  
**SAN SEBASTIAN**

**Muebles**

¡Los más sólidos! ¡Los más económicos!

Carros dorados y de hierro

**La Villa de Bilbao**

REINA REGENTE, 1 y ALDAMAR, 3  
TELEFONO 1-07-85